

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteartea, 2010eko abenduaren 21a. VIII. urtea. 2.143. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



A. MAZ

→ **Iñaki Campos garaile.** Gabonetako Azoka Berezia izan zen larunbatean Tolosan. Jende ugari bildu zen produktu bereziak ikusi eta erosi ahal izateko eta Odolki Lehiaketa ere izan zen. Amaroako San Blas Elkarteak antolatzen du txapelketa urtero eta aurtengoan Ormaiztegiko Iñaki Camposek irabazi zuen. Bigarren Segurako Aranburu Harategiak egin zuen. Asteburuan, hala ere, ekitaldi ugari izan dira eskualdean. **4-5**

Juan Mari Ansa Idazlea

«Malloen inguruko 17 ibilbide eta hauen testuingurua bildu ditugu liburuan»

Gaur aurkeztuko du 'Aralarko Malloak, ibilbideak, istorioak eta kondairak' lana **2**



I. TERRADILLOS

Zeberio II.ak ezin izan du zazpigarren garaipena eskuratu

Binakako erremonte txapelketaren finala izan zen larunbatean; elduaindarrak eta Jon bikotekideak 40-31 galdu zuten **6**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 03 38

Gabonetako
opariak aukeratzeko
aholkatuko zaituztegu!

**Zorionak eta
Eguberri On!**



→ **Laburrak**

Andre Maria Kaperaren liburuaren aurkezpena

KULTURA Enrique Bello Larrartek Andre Maria Kaperaren historiaren inguruan idatzitako liburua aurkeztuko du etzi. Udal Musika Eskolan izango da, 19:00etan.

Kultur bonuak erosteko aukera dago Leidorren

KULTURA Eusko Jaurlaritzak sustatuta, kultur bonuarekin zine bonuak eta ondorengo ikuskizunak ikus daitezke Leidor aretoan: *Baginaren bakarriketarak* antzerkia (urtarrilak 14), Mintzo dantza saioa (urtarrilak 28), La Guinda flamenko taldea (otsailak 4), *No me hagas daño* antzerkia (otsailak 18), Beberen kontzertua (martxoak 11) eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots (martxoak 26).

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarrren, 52. 112.

Tolosako Orfeoiak Eguberrietako Kontzertua emango du bihar Leidorren

20:30etik aurrera izango da; sarrerak 12 euroan eskuratu ahalko dira; bazkideek ez dute ordaindu beharrik

Iñigo Terradillos Kultura

Eguberrietan bete-betean sartuta gaudelarik, urteko sasoi honean ohiko diren hitzorduek ezin dute hutsik egin. Horietako bat da Tolosako Orfeoiaren Eguberrietako Kontzertua. Bihar ikusi ahalko dira bertako partaideak kantuan, 20:30etik aurrera, Leidor aretoan.

Bi zatitan banatuta egongo da emanaldia. Lehenbiziko zatian, Franz Joseph Haydn-en *Sortzea* obraren zati batzuk interpretatuko dituzte, eta bigarren zatian, Tolosako Eskolaniaren txanda izango da. Ignacio Ruiz Alegriak egingo ditu zuzendari lanak, eta eurekin batera, Iruñeko Concerto orkestra, Amaia Arberas sopranoa, Jon Plazaola tenorea eta Pa-



Biharko emanaldia pasa den urtekoa bezain arrakastatsua izatea espero dute. NEKA

blo Garcia baxua ere ariko dira eszenatoki gainean.

Sarrerak, orfeoizaleen bidez eskuratu ahalko dira, Tolosako Leidor antzokiko leihatilan edota Orfeoiak Nafarroa etorbidean duen egoitzan. 12 euro ordaindu behar da bakoitzeko. Bazkideek, berriak ez dute ordaindu beharrik izango.

12 urteko ibilbidea

Tolosako Orfeoia 1998. urtean eratu zen. Ignacio Ruiz Alegria da taldearen zuzendaria bere hastapenetatik. Eresoinka Abesbatza, Abeslari Lagunak eta Leidor Abesbatzako kideek eratu zuten, eta helburu nagusia Tolosako musika artxiboa berreskuratzea izan zen.

↓ **Emanaldia**

ORFEOIAREN KONTZERTUA

- **Non eta noiz.** Leidor aretoan, bihar, 20:30ean.
- **Sarrerak.** 12 euro.
- **Zuzendaria.** Ignacio Ruiz Alegria.

Juan Mari Ansa • Idazlea

«Malloen inguruko ibilbideak eta kondairak bildu ditut lan honetan»

I. Terradillos Mendia

Juan Mari Ansa idatzi eta Aralarko Adiskideak elkarteak argitaratu duen *Aralarko Malloak ibilbideak, istorioak eta kondairak* liburua kalean da. Ansa urteak egin ditu Aralarko mendigune hartako ibilbideak, txokorik gordeenak eta istoriorik harrigarrienak biltzen, eta emaitza gaur erakutsiko duten lana da. Bate-tik, liburuan irudiekin eta beharrezko datuekin azaldutako ibilbideak eta istorioak kontatzen dira, eta bestetik, CDa ere ekar-tzen du, ibilbide guztien datuekin. Bada, gaur aurkeztuko dute liburua, Topic-en, 19:30ean.

Nondik sortu zen lan hau egiteko ideia?

Aralarko Adiskideak elkarteak Aralarren inguruan artikuluren bat idazteko proposatu zidan due-la 7 urte. Izan ere, urte horretan 75 urte betetzen zituen elkarteak, eta horregatik zerbait berezia prestatzea nahi zuten. Hori egi-tzen hasi nintzen, eta pixkanaka informazio ugari biltzen hasi gi-nen. Azkenean, urteurren horre-tarako erreportaje bat egin ordez, liburu bat prestatzea erabaki ge-

nuen. Eta horretan aritu naiz az-ken urteetan.

Nola osatu duzu lana?


Hasieran Aralarko Malloen ingu-ruan ibilbideak egitea zen ideia. 17 ibilbide sartu ditugu, Araizko bailaratik Malloetako gailurreta-rra iristen diren bideekin. Ibilbide-ak sartzeaz gain, testuinguru-a sartzeari garrantzitsua iruditu zaigu-nez, osagarri moduan txertatze-a erabaki genuen.

Zer azpimarratuko zenuke lan hone-tatik?

Bigarren zatian agertzen den in-formaziotik, belar kableana na-barmenduko nuke. Garai batean, Malloetan mozten zuten belarra baserrietaraino jaisteko, kableak erabiltzen zituzten. 50 belar kable inguru egon ziren 1920tik 1967ra bitarte.

Bertako pertsonaiez ere hitz egiten duzu.

Bai. Pertsonaia oso bereziak zeu-den, nahiz eta oso ezagunak ez izan. Gaintzako eta Errazkingo *ahuntzariak* edota Juanagorrit-rrak, esaterako.



I. TERRADILLOS

2011 agenda
Dagoeneko salgai!

12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepede mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Emeterio Sorazu hil da gaixotasun luze baten ondorioz

Larunbatean meza berezia izan zen Ibarra eta ondoren bi autobus irten ziren Getariara, hileta elizkizunera

Erredakzioa Ibarra

Emeterio Sorazu, urtetan Ibarra-ko apaiz izandakoa, hil zen ostira-lean 74 urterekin, gaixotasun luze baten ondorioz.

Larunbatean haren omenezko erlijio ekitaldi bat egin zuten Ibarra eta ondoren bi autobus irten ziren Getariarantz, hileta elizkizunera joateko, Sorazu getariarra baitzen. Ibarra-ko elizkizuna hunkigarria izan zen. Jende asko bildu zen Ibarra-ko elizan eta Joxe Mari Garmendia misiolari ibartarrak bidalitako bertsoak ere kantatu zituzten.

1937 urteko urtarrilaren 17an jaio zen Emeterio Sorazu Getaria-ko Askizu auzoan, Serorita baserri-ri. 24 urterekin egin zen apaiz, eta Berastegin, Pasai Antxon, Antzuolan, Zaldibian eta azkenik Ibarra garatu du bere lana.

Seminarioko ikasketekin hasia, argiketari titulua atera zuen gero, eta denborarekin euskal kultura, dantzak, ohiturak ikasten eta ikertzen eman zuen bizitza. Apaiz langile eta ikertzaile bezala aritua, irakasle dohainak ere erakutsi zituen, horretan ere arituz.

Liburu egilea

Azken urteetan gaixo bazegoen ere lanean jarraitzen zuen Sorazu. Orain urte bete, gutxi gorabehera, *Joxe Mari Garmendia Ezeiza: Fedea eta bizitza bertsotan 1971-2009* liburua aurkeztu zuen. Liburuan Garmendia misiolari

ibartarraren «bizitza eta bere pastoralgintza laneko joan-etorrien» berri ematen zuen apaizaren beraren hitzetan, batetik, eta bestetik, bi mila bertso inguru ere bildu zituen.

Era berean, pasa den urteko maiatzean *Antropologia y religión en el pueblo vasco* liburua ere kaleratu zuen. Lan mardula zen oso, ikasle zela eginiko tesia, hain zuzen. Bertan euskal ohitura, errito eta mitoak bildu zituen eta baita euren zergatia ere. Lana egin ahal izateko Gipuzkoako baserri askotan ibili zen gaztaroan Sorazu, inkestak egiten eta maisu paregabea izan zuen horretarako, gainera, Joxe Migel Barandiaran.

Sorazu herri desberdinetan aritu zen apaiz, baita Berastegin ere 60. hamarkadan, eta horregatik 2008an omenalditoxa egin zioten herrian. Ibarra ere 2007an omenaldia eskaini zioten.



Jende asko izan zen Abaltzisketan larunbatean. A. MAZ

San Tomas azoka egin dute plazan

Abaltzisketan larunbatean ospatu zuten gaurko San Tomas eguna; postu ugari bildu ziren azokan

Erredakzioa Abaltzisketa

San Tomas eguna gaur bada ere, Abaltzisketan larunbatean ospatu zuten. Urteroko ohiturari jarraituz azoka izan zuten eta postu ugari bildu ziren bertan. Azoka eskolako gurasoek antolatzen dute urtero, eta postu bat ere jartzen dute, bertan bildutako dirua eskolara bideratzeko.

Santomasen ospakizunetan txerria ere ezin falta eta aurtengoa lehen aldiz gainera, azoka eta txerria izan ziren herriko protagonistak egun berean.

«Normalean egun desberdinetan egiten dugu, baina aurten batera egin dugu. Txerria egun batzuk lehenago hil zuten, baina jan larunbatean jan genuen», argitu du antolatzaileetako batek. Txerri jatearen ondotik, askok kafea-

ren garaian mus txapelketan ere hartu zuten parte. Herriko haurrek alaitu zuten eguna trikitixa eta panderoekin eta bertsoak ere entzun ahal izan ziren.

Bestalde, hauek dira pasa den ostiralean eskolan eginiko zozketan ateratako errifin zerbaki saridunak: 366 eta 1.532. Lehenengoak saski eder bat eskuratuko du eta bigarregoa laguntzako afaria.

Era berean, Txalburu Eskolako Guraso Elkarteak parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta baita zorionak ere irabazleei.

'Filemona'

Arestian aipatu bezala, hala ere, gaur da San Tomas eguna eta beraz, Donostia eta Azpeitian, esaterako, jai giroa izango da nagusi egun guztian zehar.

Donostian, gainera, urteroko ohiturari jarraituz txerria ere izango da Konstituzio plazan eta leitzarri izango da, gainera.

Filemona txerriak 320 kilo pisatzen ditu eta Leitzako Arro base-ria du bizileku.



Emeterio Sorazuk pasa den urteko maiatzean kaleratu zuen gaztaroan egindako tesia. R. CALVO

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neuniko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Irudia • Tolosa



GABONETAKO AZOKAN, POSTUEZ GAIN JENDE UGARI

Tolosan jendetza bildu zen larunbatean izan zen Gabonetako Azokan. Alde batetik, herriko hiru puntutan banatuta Gabonetako Azoka zegoen eta bestetik, larunbateroko ohiko azoka. Odoñi Lehiaketa ere izan zen Trianguloan, Amaroñko San Blas Elkarteak antolatuta.

laz bezala, lehen saria Ormaiztegioko Iñaki Campos harategiak irabazi zuen eta bigarren Segurako Aranburu Harategiak galditu zuen. Epalbe lanetan Tolosako sukaldariak aritu ziren. San Frantzisko pasealekuan era guztiak jakeiz gain, artisauak landutako lanak egon ziren kuzgal eta erosgal. Trianguloa plazan, barazki eta frutuekin batera gozoak egon ziren aukeran. San Blas elkarteak berriz, goiz guztian zehar odolik baratzten aritu ziren. Plaza Zaharrean azkenik, euskal arzak animalien erakusketara egon ziren.

Irudia • Tolosa



TRUKE EGUNAREKIN GUSTURA

Tolosako Emakumeen Denboraren Bankuak, udalaren Berdintasun sailak lagunduta, Truke Eguna antolatu zuen Zerkausion. Antolatzaileak oso gustura eta pozik geratu dira ekimenak izan duen erantzunarekin. Momentu guztian trukean aritu ziren eta gauzez gain, zerbitzuak ere trukatu zituzten.

Irudia • Tolosa



HIRUKIDEKOAK HIZLARI

Euskararen Gizearte Erakundearen Kontseiluak hezkuntzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Euskarako bigarren kate batean, hizkuntza-normalizazio proiektuen bidez izenpean. Hirukide ikastetxea hizlari artean izan da. Bertan izan dira, Maite Etxebarri eta Joseba Anbustiegietarte eta Kataluniatik ekarritako hizlari bat (erdian).

Irudia • Tolosaldea



LEGALIZAZIOA ALDARRIKATUZ

Asteburuan eskualdeko herri askotan ezker abertzalearen legalizazioa aldarrikatzeko hainbat ekimen egin dituzte. Herri bakoitzak aldarrikapena egiteko modu ezberdinak aukeratu ditu. Larunbatean, Anoitán eta Gaztelun herriko plazan elkar-

Irudia • Berastegi



ELKARTASUN AZOKA

Urtero bezala, Gabon egunak gerturatzaren direnean Elkartasun Azokak egin ohi dira eskualdean. Ibaran asteburuan izan da Ibaratik Misio Taldearen eskutik. Berastegin, Muñagorri eskolako ingurumen batzordeak antolatzen du eta arto itxi zituen atak. Lekukoak, Tolosako Laskorain ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikiak hartuko du. Hilaren 26an zabalduko ditu atak kultur etxean.

Urtxo berria on 2011

Tolosa & Co

Promozio berria

Sustatzailea:
 Epergin
 Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
 Eraikitzen du:
 Aburuza
 Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoz baino irakurri gehiago ditza, baino inoz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Bereziki eta berraztertuta, zure laguntza behar du zure irudirik gabeko, apurka hau zurrera ateratzeko da, zuekin batera, gure erroñka.

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berrieta.info

berria taldea

Ekarpena egiteko bideak
 50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)
- Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean

berria taldea

Irudia > Pilota



MENDIZABAL GARAILA AROZENAREN AURKA

V. Emakumea Pilotari Txapelketaren hiru final jokatu ziren Beotiba-
rren larunbatean. Maila gorenean, eskualdeko bi pilotari aritu dira
elkarren aurka: Anoetako Maider Mendizabal eta Lizartzako Nagore
Arozena. Final gogor eta borrokatu baten ondoren, Redondo-

Mendizabal bikoteak jantzi du txapela, Zabala-Arozenari 30-24 irabazi ostean. Jubeniletan, Hernani 2 bikoteak 30-20 irabazi zion Hernani 4 bikoteari. Nagusien bigarren mailan Bañales-Perez bikoteak 30-17 irabazi zion Lendinez-Gutierrez bikoteari. A. IMAZ

Zeberio II.ak ez du zazpigarren txapela lortu

Jon bikotearekin batera 40-31 galdu zuen elduaindarrak finala Urriza eta Etxeberria III.aren aurka

Erredakzioa Elduain

Binakako erremonte txapelketaren finala jokatu zen larunbatean Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Patxi Zeberio elduaindarrarentzat zazpigarren finala zen. Aurreko sei etan txapela lortu zuen elduaindarrak baina azkenekoan porrotarekin itzuli behar

izan zuen etxera. Elduaingo Zeberio II.ak Jonekin osatu zuen bikotea eta Urriza-Etxeberria III.a zituzten aurkari.

Zeberioaren aurkariak ziren favoritoak eta partida guztian aurretik joan ziren, azkenean 40-31ko emaitza lortuz. Lehiak ordu bete eta 31 minutu iraun zuen. Zeberio pilotak atzera bota zituen, baina Etxeberria III.ak batez ere eta Urrizak defentsa handia erakutsi zuten. Elduaindarrak ez zuen zirrikitu handirik topatu tantoak egiteko. Zeberio eta Jon ez ziren asko hurbildu markagailuan. Gertuena bost tantotara izan ziren, 33-28koan.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. Interesatuak deitu 687 40 52 33 telefonoz zembakira.

■ **Ekonomika.** Lakuntza markako ekonomika, Clasica modelo. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuak, deitu 649 51 09 41 zembakira.

■ **Plantetako enkofratua.** Karrerak, zertxak, puntalak, postetako txapak, taberoak

200x50 saltzen dira. Modu onean. 667 41 88 75.

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefono zembakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harremanetarako telefono zembakira: 635 75 91 15.

Ibarra A taldea gailendu da 300 kilokoan

Emakumezkoen 250 kiloko mailan, Ibarra A taldeak hirugarren izan da; Berriozarren egin dituzte tiraldiak

Erredakzioa Ibarra

Euskal Herriko lau sokatira txapelketaren finala jokatu zen larunbatean Berriozarren (Nafarroa). Gizonetan, 300 kiloko mailan, sei talde onenen artean finala jokatu zuten. Ibarra A-k tiraldi guztiak irabazi zituen eta ondorioz, 320 kilotan egin bezala, lehen postua eskuratu zuen. Saikape-neko bi jardunaldietan bezala, Ibarra A-k irabazi zituen bost txandak eta 10 tiraldiak.

Ibarra B-k ere parte hartzen zuen. Finalean tiraldi guztiak galdu zituen eta seigarren postuan amaitu zuen. Hala eta guztiz ere, tiratzaile hasiberriak izaki eta finalerako txartela lortzea nahiko helburu zenez, «oso gustura» agertu ziren. Saikapean bigarren Amair B gelditu zen eta hirugarren Berriozar.

Emakumezkoen Txapelketa

Emakumezkoen Txapelketan hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zuten Berriozarren. Hiru egunetako puntuak pilatu ostean, Ibarra A hirugarren sailkatu da 250 kiloko mailan. Ibarra B aldiz, seigarren gelditu da. Azken saikapean Amairurreko taldea izan da onena, Badaiotzen aurretik.

↓ Emaitzak

PILOTA

AZYSA TORNEOA

Finala	
Zeberio II.a-Ion	31
Urriza-Etxeberria III	40

V. EMAKUMEA PILOTARI

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Finala	
Redondo-Mendizabal	30
Zabala-Arozena	24

KUTXA BURUZ BURUKO

TXAPELKETA

Finalerdiak	
Bengoetxea VI.a	10
Zubieta	4
(Zubieta partida utzi egin zuen lesionatuta)	
Juan Martinez de Irujo	22
Patxi Ruiz	15

BERRIA TXAPELKETA

Kadeteak

Intxurre	22
Usurbil	3
Jubenilak	
Intxurre	22
Usurbil	4

Nagusiak

Intxurre	5
Usurbil	22

SOKATIRA

GIZONEZKOEN 300 KILOKO

TXAPELKETA

1. Ibarra A	6 puntu (15 tanto)
6. Ibarra B	1 puntu (0 tanto)

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA

Hamaikagarren jardunaldia	
Take Bide Bide Ibiza	64
Lizuan.com ISB	73

FUTBOLA

LURRALDEKAKO OHOREZKO

MAILA

15. jardunaldia	
Tolosa	0
Hondarribia	1

LURRALDEKAKO

PREFERENTEA

14. jardunaldia	
Tolosa 'B'	3
Mondragon 'B'	1
Intxurre	3
Amakak Bat	2


ARETOFUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Hamalagarren jardunaldia	
Lauburu K.E.	7
Burgos	2

NAZIONAL B MAILA

Hamahirugarren jardunaldia	
Clinica Dental Aldaz	3
Irish Pub Shepherd's	3
Elorrio Buskantza	8
Laskorain Ikastola	7
Transportes Lakunza	8
Euskalduna	5



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Etxearen inguruan egindako hausnarketa prozesuaren ondorio da hau; edonork har dezake parte bertan

Erredakzioa Leitza

Atekabeltzek bere bosgarren urteurrena betetzearekin batera, hainbat hausnarketa eta lanketa egin ditu herriko etxearen inguruan. Horretarako herriko eragile eta bizilagunekin hainbat aldiz elkartu dira, eta azken hilabeteetan egindako batzar eta bileren ondotik Atekabeltz Elkarteak sortu dute.

Leitzako Gazte Asanbladakoek aspaldi oharatu ziren bilakaera honen beharraz eta bosgarren urteurrenako ospakizunak iragaritzean, erronka gisa aipatu zuten. Beraien hitzetan, «etxea, herriaren beharretara moldatzea dugu xede, eta zabalkunde handiagoa ematea». Lehen ere, herriarentzako lan egiten zuen gunea baldin bazen ere, hemendik aurrera ere gehiago izango dela esan daiteke.

Erronka eta egitasmoak aurrea eramateko, batzorde bat ere sortu dute eta bertan ondorengo eragileek hartzen dute parte: Gazte Asanblada, Kultur Taldea, Bilgune Feminista, Txalaparta taldea, Ikasle Abertzaleak eta Pinturazaleak.

«Irekia, balioanitzeko eta parte-hartzailea» izatea da Atekabeltz etxearen asmoa. Hori dela



Duela bost urtetatik «herriaren zerbitzura» dago Atekabeltz gaztetxea. A. IMAZ

Atekabeltz herri eragile eta elkarte berria sortu dute

eta, herritar ororentzat zabalik dago. Honez gain, beste hainbat eginkizun ere baditu sortu berri den elkarteak, tartean, euskal kultura eta kultur aniztasuna bultzatzea.

Atekabeltz-eko kide izateko gonbidapena

Egitasmoak herritar ororen eta mugimenduren ahots izan nahi duenez, leitzar guztiak gonbidatzen ditu bertan parte hartzera. Horretarako izen-emate orriak

prestatu dituzte. Hala, interesa dutenek, elkarteko kide izateko aukera izango dute. Honetarako hau bete behar dute, eta Leitzako gaztetxean utzi. Kide bakoitzak hamabi euro ordaindu beharko ditu urteko.

Elkarteko ordezkariak argi dute funtzionamendua azolanean egongo dela oinarritua, eta «nork bere alorreko lanak eta egitekoak gauzatzeko gunea izateaz gain, elkarrekin eta elkarlanean aritzeko eremua ere izango dela».

Honekin, beste behin ere, herri mugimendu alternatibo bat sortuko dute.

Bost urte lanean

2005eko uztailaren 20an okupatu zuten 16-20 urte bitarteko hainbat gaztek, ordura arte Guardia Zibilen kuartel izan zen. Ordutik, hainbat ekimen burutu dituzte «herriari bizia emateko asmoz». Orain, norabide beretik jarraituko baldin badute ere, bide gehiago ere jorratuko dituzte.

→ Laburrak

Plan Orokorriari alegazioak aurkezteko epea indarrean

ALBITZUR › Udalak hasierako onarpenera eman dio Plan Orokorriari eta orain irekia dago dokumentuari alegazioak aurkezteko epea. Horretarako aldia amaitzear bazen ere, epea luza ztea erabaki dute eta urtarillaren Sera arte luzatuko da.

Sarriopapelen LABek lortu du botoen gehiengoa

LEITZA › Joan den astean Enpresa Batzorderako bozketak egin zituzten Sarriopapel lantegian. Bertan, LAB sindikatuak 8 ordezkari atera zituen 221 botorekin eta ELAK 5, 137rekin. Lau urtetik behin egingen dute bozketak.

Udalbatzak Ez Ohiko Osoko Bilkura du gaur

IBARRA › Udalak Ez Ohiko Osoko Bilkura egingo du gaur 09:00etan. Batzarrean ondorengo gaiak jorratuko dituzte: 11.1 JU-ko dotazio eraikina, erretiratuaren elkarte eta eguneko zentroaren proiektua; 11.2 ko obra eta partzelean salmentarako kontratazioarako plegu administratibo eta teknikoaren onarpenera; Ibarroko Etxebizitza Tasatuaren Udal Ordenantza.

Saia ehizan hasi zenekoa



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galaraga

Biologia

Sai arreak edo putreak, orain gutxi zeresan handia eman zuten; itxuraz behi, ardi eta behor hilez elikatzen zen hegazti handi hau eta bat batean behi, ardi eta behor kumeak ehizatzen hasi zen.

Gogoratzen dut, neure inguruko jendearen ahotan esaldi bat zegoela «sai arrea sarraskijalea da, beraz ez daki ehizan, ezinezkoa da etxeko animalia horiek sai arreak hiltzea», elizaren dogma bat zirudien. Baina bizidunak tartean sartzen diren gaietan... dogmak ez dira existitzen! Egia da, sai arrea sarraskijalea bezala katalogatu dela, baina horixe, katalogatu egin da, horrek ez du esan nahi sai

arrea goseak akabatzen dagoenena ehizatzen ez denik saiaturko.

Sai arreaken itxura ikusten dugunean sarraskijale peto baten aurrean gaude. Moko handi okertuak haragi zatiak lortzeko balio dio, bere burusoilak gorpuen barrura errazago sartzea ahalbidetzen dio eta bere bista bikainaz oso urrunetik ikus dezake hilda dagoen animalia. Gorputz hila jaten dituen oso izua da, bere geneetan *janaria ez da mugitzen* idatzia baitago eta gorpuren mugimendu minimo batek erraz izutzen du, horregatik, sai arrea ez badago oso seguru ikusten ari den gorpua hilda dagoela, ez da gerturatu. Horregatik esaten da, belee hildakoari begiak jan arte ez dela sai arrea beratu jaten hasiko. Bizidunek ez dituzte arriskuak hartzen!

Orain 20 urte, sai arrea ia desagerturik zegoen eta gobernuak haur egiditeko sai arrea elikatzen hasi ziren mendietan hildako abereak utzi, modu honetara sai arren populazioa izugarri handi-

tu zen, garai batetako kopuruak errekuiperatuz... eta hona hemen «akatsa». Jada sai arrea berreskuratu zela ikusirik honi gradualki janaria kentzen hasi ordez janaria ematen jarraitu zen, izan ere, ingurumenaren aldeko ekintzek jendaurrean harrera bikaina baitute eta noski, ongi egindakoa egiten jarraitzea komeni da. Sai arreaken populazioak goraka jarraitu zuen, baina populazio honetako aleak bereziak ziren, ia ia ahora janaria eman zitzaizenez, izaera ausartagoa zuten, jada ez ziren hain izuak.

Baina behi eroen gaitz famatua gorabehera, hildako animaliak mendian uztea debekatu zen, zer sortu zuen honek? Sai arre populazioa ikaragarri bat, izaera ausartekoa eta okerrera: goseak zegoena. Eta goseak bizidunetan eragin handia izaten du eta sarraskijale bezala sailkatu zen hegaztiztar hau, moxal jaiotze berriak, arkumeak eta txekorrek ehizatzen hasi zen. Hala ere, biologoek badugu arazo honi konponbidea, baina hau hurrengo zutabearen idatziko dugu, ezta?

Informazio gehiago *bioaniztasunetik.blogspot.com* eta iradokitzen, kekax, eskaerak edo neurkin kontaktuan jartzeko *bioaniztasunetik@hotmail.com*.

Gutunak

Non dira Leitzako EA-ko zinegotziak?

Abenduaren 15ean, Auzitegi Nazionalak aginduta, Leitzako herritar batek epailearen aurrean deklaratu behar izan zuen, terrorismoa goratzeaz akusaturik.

Leitzako pestetan jarritako karpn zeuden pankartek eta argazkiek eman diote aitzakia Estatuari herritarrak jazarri eta eskubide zibil eta politikoak berri erasotzeko. Pesta herrikoiak antolatze ahaleginaren aurka ekin diote oraingoan, eta larria da, larria denez. Haserrea eragin du, jakina, Leitzako herritarren artean.

Baina ez da haserrea eta amorrua eragin duen bakarra. Izan ere, Jose Jabier Sestorainen aurkako ekintza hori dela eta Leitzako Udalak deitutako Ez Ohiko Osoko Bilkuran, herritar bati ezinbesteko elkartasuna eta babesa eskaintzeko uanean, Leitzako Eusko Alkartasunak dituen hiru zinegotzietatik ez zen bakar bat ere bertaratu. Hantzen Alderdi Popularreko ordezkaria, espero bezala elkartasuna adierazteko gai izan ez bazen

ere. Baina EAko ordezkariak ez zuten elkartasunik eta babesik adierazi, eta, batek daki zer azterketa politikoren ondorioz, Batzarrea ez joatea erabaki zuten.

Euskal Herrian askatasun zibil eta politikoen aldeko ekimen eta gogo indartsuak gauzatzen ari diren une honetan, egoera demokratiko baten aldeko elkarlana gorpuzten ari den garaian, Leitzako EAko ordezkariak bestelako jarrera bat hautatu dute. Jose Jabier Sestorain herrikoideak Udalaren gehiengorekin babesa jaso zuen, baina ez, aipatu bezala, Eusko Alkartasuna alderdiko ordezkari politikoenena.

Herritar baten aurkako prozedura bidegabekoa eta zentzugabea abiatu denean, herri osoari egindako erasotzat uler daitezkeen ekimen bat gauzatzen ari den bitartean, ez da gordetzeko eta ihes egiteko unea. Hala ere, hori egin dute, zoritxarrez, Eusko Alkartasunako Leitzako zinegotzietatik, eta ezin salatu gabe utzi, hau gertaera larria dela iruditzen baitzaigu.

■ **Eneko Astibia.** Osoko Bilkuran izan ziren herritar batzuen izenean.



90°
80°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Alaia Garro Ugartemendia (Irura). Pasa den igandean 5 urte.
Zorionak Urki, aitatxo eta amatxoren partetik!



Urte askoan!

Ebarista Arrate Luluaga (Lizartza).
Gaur 80 urte. Zorionak eta urte askoan jarraitu gure etxeokonde izaten. Etxekoak.



Urte askoan!

Jesus Mari Ormaetxea (Alegia).
Atzoko partez, zorionak etxeokoen, eta batez ere, Nerea eta Urkiren partetik.



Zorionak amona!

90 urte bete dituzu eta familia ederra osatu duzu. Gure habea eta bizi poza zara! 90 muxu, belarri tirakada goxo eta zera, asko maite zaitugula!




**44-64
neurriak**

Berezi

Gabonetako eskaintzak!

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda




Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965



MUGAR

MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37
TOLOSA



Egin zure erosketak Mugarren Opari praktikoak Mugarren